

XXXVI NAFARROAKO KIROL JOKOAK - HERRI KIROLAK 2023

Martxoaren 5ean Nafarroako Herri Kirol Jokoei hasiera emanen zaie Atarrabiako Paz De Ziganda Ikastolan, goizeko 10:30etatik aurrera.

Herri kirol Joko hauek apirilaren 2a arte luzatuko dira, guztira 4 jardunaldi eta Finala jokatuko direlarik.

- 1.Jardunaldia: Atarrabian, martxoaren 5ean (10:30)
- 2.Jardunaldia: Olaztin, martxoaren 12an (10:30)
- 3.Jardunaldia: Antsoainen, martxoaren 19an (10:30)
- 4.Jardunaldia: Etxarri Aranatzen, martxoaren 26an (10:30)
- 5.Jardunaldia (FINALA): Igantzin, apirilaren 2an (11:00)

Nafarroako Kirolaren Institutuarekin batera urtero antolatzen diren Herri Kirol Joko hauetan hiru kategorietako neska-mutilek hartzen dute parte: **kimu mailakoak** (11-12 urte), **haur mailakoak** (13-14 urte) eta **kadete mailakoak** (15-16 urte). Taldeak mistoak izan ohi dira.

Haur eta Kadete mailetan bi txapelketa egiten dira: **Sokatira** eta **Proba Konbinatua** (lokotx biltzea, zaku lasterketa, txinga-erute, korrika eta arpana modalitateak biltzen dituena).

Kimu mailakoek berriz, proba konbinatuko txapelketa bakarrik izanen dute (arpana modalitatea ez da sartzen).

Ondorengo Taulan parte hartzaileak azaltzen dira:

Kimuak (2011-2012)	Haurrak (2009-2010)		Kadeteak (2007-2008)	
KONBINATUA	KONBINATUA	SOKATIRA	KONBINATUA	SOKATIRA
Andra Mari 1	Andra Mari 1	Andra Mari	Andra Mari	Hotsein
Andra Mari 2	Andra Mari 2	Hotsein		
Andra Mari 3	Andra Mari3			
Andra Mari 4				
Andra Mari 5				
Andra Mari 6				
Antsoain A	Antsoain A	Antsoain A	Antsoain	Antsoain
Antsoain B	Antsoain B	Antsoain B		
Antsoain C				
Antsoain D				
Antsoain E				
Antsoain F				
Araxes	Araxes	Araxes	Araxes	Araxes
Basaburua	Basaburua			
Berriozar A	Berriozar	Berriozar	Antsoberri	Antsoberri
Berriozar B				
Berriozar C				
Igantzi A	Igantzi		Igantzi	
Igantzi B				
Iñigo Aritza A				Iñigo Aritza
Iñigo Aritza B				
Iñigo Aritza C				
Joakin Lizarraga - Malkaitz				
Joakin Lizarraga - Tangorri				
Paz De Ziganda 1				
Paz De Ziganda 2				
Paz De Ziganda 3				

KATEGORIA BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO PROBAK

KIMUAK

PROBA KONBINATUKO LANAK (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx biltzea	1	8 kozkor, metro bateko tarteaz jarrita
Txingak	1	80 m. 3 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 6 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 metro (bi buelta plazari)

- Lau jardunaldi eta Finala jokatu dira. Finalean lau taldek hartuko dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.

HAURRAK

PROBA KONBINATUKO LANA (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx Biltzea	1	10 kozkor, metro bateko tarteaz jarrita
Txingak	1	80 m. 5 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 10 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 m. (2 itzuli)
Arpana	2	70 m.ko 2 korte

- Lau jardunaldi eta Finala jokatu dira. Finalean lau taldek hartuko dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.

SOKATIRAKO PISUA: 480 kg.

- Multzo bakarra izanen da eta **bost jardunaldi** jokatu dira liga sistema erabiliz.

KADETEAK

PROBA KONBINATUKO LANA (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Kolotx Biltzea	1	12 kozkor, metro bateko tarteaz jarrita
Txingak	1	60 m. 10 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 15 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 13 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	240 m. (3 itzuli)
Arpana	2	70 zm.ko 3 korte

- Lau jardunaldi jokatu dira liga sistema erabiliz (puntutara). **Martxoaren 26an bukatuko da.**

SOKATIRAKO PISUA: 540 kg.

- Multzo bakarra izanen da eta lau jardunaldi jokatu dira liga sistema erabiliz. **Martxoaren 26an bukatuko da.**